

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak

Heziketa-modulu hau **AIDOS** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	3
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: Generoari buruz berbetan	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	6
• Jarraibideak	6
2. jarduera: Publizitate-jokoa	7
• Testuingurua	7
• Gidoia	7
• Jarraibideak	8
3. jarduera: Aurreiritziak	9
• Testuingurua	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	10
Saioaren egitura	11
Moduluen zerrenda	13

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Modulu honen xedea da genero-desberdintasunak ezartzen dituzten gizarte-eredu eta arau garrantzitsuenak aztertzea. Parte-hartzaileei ohartarazten zaie emakumezko zein gizonezkoen identitateen gaineko iguripenak kulturak, hizkuntzak, hezkuntzak eta familiak elikatzen dituztela eta, horrez gain, garai historikoaren eta testuinguru kulturalaren arabera direla. Xedea da hausnartzea arau horien eta genero-desberdintasunaren arteko lotura historikoari buruz, estereotipo eta aurreiritzi sexista horiek sendotzeko mekanismoei buruz, eta garapen indibiduala eta helburu eta jaidura pertsonalak gauzatzea mugatzeko eta/edo eragozteko duten ahalmenari buruz.

2. Gai nagusiak

- Genero-desberdintasunak eta rola
- Genero-estereotipoak eta gizarte-arauak
- Sexismoa hizkuntzan
- Aurreiritzia antzematea eta gainditzea
- Desberdintasun kulturalak eta tradizioen aldaketa
- Genero-berdintasuna

3. Gako-hitzak

Generoa • Genero-berdintasuna • Genero-estereotipoak
Genero-rolak • Sexismoa hizkuntzan • Gizarte-arauak • Tradizioa

4. Ikasketa-xedeak

- Jarrera eta jokabide estereotipatu zein estereotipatu gabekoei buruzko hausnarketa sustatzea genero-ikuspegi batetik.
- Norberak denbora luzean izandako nahi gabeko estereotipo partzialen inguruko kontzientzia eta ezagutza areagotzea.
- Hizkuntza sexista eta genero-aurreiritziak elikatzen dituzten mezu kulturalak lantzea.
- Aurreiritzirik gabeko genero-irudi positiboak eta irudikapenei balioa erakatea.
- Pentsamendu kritikoa eta norberaren adierazpen askea sustatzea.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ¹
1	Generoari buruz berbetan	45 minutu	- Egunkariak eta aldizkariak, argazkiak eta iragarkiak - Itsasgarria - Artaziak - Horma-irudia	☆☆☆
2	Publizitate-jokoa	45 minutu	- Horma-irudia - Errotuladoreak eta boligrafoak - Koloretako papera	☆☆☆
3	Aurreiritziak	45-60 minutu	- Boligrafoak - Papera - Multimedia erreproduzitzailea	☆☆☆

¹ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

1. jarduera Generoari buruz berbetan ☆☆☆



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 15
Segimendua: 20



Materialak

- ☐ Egunkariak eta aldizkariak, argazkiak, iragarkiak
- ☐ Itsasgarria
- ☐ Artaziak
- ☐ Horma-irudia

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua bikoitza da: batetik, xedea da **norberaren kulturen gehien hedatuta eta ordezkatuta dauden genero-ereduak atzematea** eta, bestetik, parte-hartzaileak **babestea genero-rolen trukagarritasunaren identifikazioan**.

→ GIDOIA

Jarduerari ekingo diogu parte-hartzaileak genero-rolen inguruko sarrera txiki batekin erakarriz; hala, iradokizun batzuk eta zenbait galdera egingo dituzte, baina gehiegi aurreratu gabe eta eztabaida filosofikoetan sartu gabe.



A Bigarrenik, gelaren erdialdean kokatuko ditugu egunkariak, aldizkariak, arroparen edo jokoen publizitatea duten liburuxkak eta pertsona famatuen argazkiak musikaletan, zineman edo kirol-ekitaldietan. Garrantzitsua da ahalik eta irudi gehien ematea pertsonen zein eguneroko objektuen eta jardueren irudiak erabiltzeko (lana, bidaiak, sukaldaritza, haurren zaintza, kirola, moda...), baita mezu kulturalen hartzailea aldatzeko ere (helduak, gazteak, gizonak, emakumeak eta abar).



B Parte-hartzaileei eskatuko zaie materiala aztertzeko eta zenbait irudi aukeratzeko (1-3), hain zuzen ere, gizonezkoen zein emakumezkoen generoa irudikatzen dutenak (irudien kopurua duten denboraren arabera aldatu beharko litzateke).



C Horma-irudi bat emango diegu eta hori bi zatitan banatuko da (maskulinoa eta femeninoa); erdian espazio bat zuri utzi behar da (hori parte-hartzaileek iritzi desberdinak dituztenean erabiliko da). Horrenbestez, parte-hartzaileek irudiak kokatuko dituzte bakoitzari dagokion atalean eta gauza zehatzei buruz eztabaidatzen hasiko dira: Denboran zehar aldatu al dira? Eta kultura desberdinetan? Beste generokoak izango balira, zer nolako eragina izango luke horrek haiengan?



D Horren ostean, gure helburua izango da maskulinoaren eta femeninoaren bi irudi orokorren desberdintasunari buruz hausnartzea eztabaidan zehar agertzen diren dikotomiak erabiliz (indartsua/ahula, etxea/lantokia, natura/kultura eta abar.). Gainera, genero-dikotomia eragiten duten alderdi horietako askoren izaera kulturala eta ez-biologikoa aztertuko da.



E Azkenean, informazioaren sistematizazioa aztertuko dugu, jarduerari buruz gogoeta egin eta eztabaidatu ahal izateko. Azken fase horretan, genero-arauak eta estereotipoak gai kulturaletatik aterako dira zuzenean eta, orduan, gure eginkizuna izango da ezarritakoetatik harago doazen irudien eta rolen inguruko hausnarketa bultzatzea, zehazki, rolen izaera trukagarriaren kontzeptua aurkeztuz.

→ JARRAIBIDEAK

Jarduera bukatzeko, parte-hartzaileek agertutako gaien inguruko iritziak partekatuko dituzte. Kulturak genero-arauak, estereotipoak eta aurreiritziak finkatzean edo gainditzean eta deuseztatzean jotzen duen rolararen inguruan hausnartuko dute.

Adieraziko dugu rola aldaketa kulturalen arabekoak direla, denboran zehar bilakatzen direla eta txertatuta dauden gizartearen eta mikrokosmosaren arabera aldatzen direla (besteak beste, familia-testuinguruaren arabera). Beharrezkoa izatekotan, aztertu dituzten irudiak gogorarazten dituzten adibideak emango ditugu.

Jakin-mina, buru-irekitasuna eta iritzi guztiak onartzeko eta edozein ikuspunturi harrera ona egiteko trebetasunak **sustatu beharko ditugu**, horrela hausnarketa kritikoa bultzatzeko eta taldeko kideak iritziak eztabaidatzera animatzeko. Edozein epaiketa eta gaitzespen kaltegarria izango da eta, horregatik, horiek egitea saihestu beharko litzateke, baita parte-hartzaileek, nahita edo ez, genero-desberdintasuna baieztatzen edo estereotipoak eta aurreiritziak berresten dituztenean ere.

2. jarduera Publizitate-jokoa ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu

Prestatzea: 5

Egitea: 25

Segimendua: 15



Materialak

□ Horma-irudia

□ Errotuladoreak eta boligrafoak

□ Koloretako papera

→ TESTUINGURUA

Aurreko jardueraren horma-irudia erakutsiz ekingo diogu jarduerari. Helburua da **estereotipoen inguruko eztabaida laburbiltzea eta horretan sakontzea**. Sarrera-jardueraren ostean, taldea 4-5 parte-hartzaileko talde txikitan banatuko da eta rol-jokoa azalduko zaie.

→ GIDOIA



A Talde bakoitzak publizitate-agentzia bateko bilera bat antzeztu behar du. Marka ospetsu batek iragarki bati enkargatu du genero-estereotipoak islatzen ez dituzten produktuak sustatzeko.



B Iragarkia egiteko, talde bakoitzak eslogan bat eta irudi bat sortuko ditu (marrazki bat, komiki-tira bat, irudi bat, eszena baten deskribapena). Posiblea eta erabilgarria izatekotan, beren eskuko telefonoak erabil ditzakete irudiak deskargatzeko.

Talde bakoitzak zeregin berezi bat dauka:

- **Lehenengo taldeak** etxeko garbiketa-produktuen publizitatea egingo du (platerak garbitzeko xaboia, zorurako xaboia eta abar.)
- **Bigarren taldeak** haurrentzako zaintza-produktuen publizitatea egingo du (pixoihalak eta arropa).
- **Hirugarren taldeak** zurgintza eta norberak egiteko produktuak sustatuko ditu (mailuak, zerrak).
- **Laugarren taldeak** azpiko arropa sustatuko du (galtzontziloak, pijamak).

Jarduera errazteko eta babesteko, produktu zehatz bat esleituko diogu talde bakoitzari, adibidez, parentesi artean iradokitako produktuak.

→ JARRAIBIDEAK

Jarduera osoko bilkura batekin amaituko da; orduan, taldeek iritziak eta pentsamenduak partekatuko dituzte. Eztabaida geldo hastekotan, galdera-gako batzuk egingo ditugu; *honako hauek, adibidez:*

- Ba al dago alderen bat iragarki honen eta normalean telebistan ikusten ditugun iragarkien artean?
- Besteekin alderatuta, zein da helarazten duen mezua?



3. jarduera Aurreiritziak ★★☆☆



Jardueraren iraupena guztira
45-60 minutu
Prestatzea: 15
Egitea: 20-35
Segimendua: 10



Materia Materialak is
☐ Boligrafoak
☐ Papera
☐ Multimedia erreproduzitzailea.

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua da **norberaren ezagutza eta emozioen adierazpena sustatzea**: Zure pentsamenduak, sentimenduak eta emozioak idazteak laguntzen al dizu zeure burua ulertzen?

Jarduerak parte-hartzaileei beren adimen emozionala garatzen eta estereotipoak nola hautematen diren sakonago ulertzen ere lagunduko die parte-hartzaileei.

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu azken bileraren eztabaida-harira itzultzeko.



Ondoren, bideo bat ikusiko dute eta hori input bat izango da osoko bilkura labur bat egiteko eta banakako idazketa-jarduera bat egiteko. *(hurrengo orria)*



Gero, bideoan irudikatutako estereotipoen eta aurreiritzien inguruko eztabaida bat abiaraziko da. Taldeak estereotipo horiek nola antzematen dituen eztabaidatuko du, bai egungo egoerari dagokionez, bai testuinguru kultural zein historiko desberdinei dagokienez.



Hori egin ostean, orrialde eta boligrafo bana emango diegu parte-hartzaileei eta banakako idazketa-jarduera anonimo bat hasiko da (anonimotasuna mantendu eta babestuko da). Jarduerarako, **honako eskakizunak ezarriko dira**:

- Genero-aurreiritzi baten onspena ikusi zenuen unea azaldu (zeure aurka edo beste pertsona batzuen aurka).
- Genero-estereotipo baten biktima izan zineneko une hori azaldu; nola sentitu zinen esan.

Bideoa beherago daudenen artean aukera daiteke edo geuk hauta dezakegu zuzenean bat (taldeak hitz egiten duen hizkuntzan dagoena), zehazki, taldearen testuinguru espezifikoaren arabera. Aukeratutako bideoa edozein delarik ere, abiapuntu moduan baino ez dugu erabiliko parte-hartzaileek pentsa eta eztabaidatu dezaten; beraz, azpimarratuko da asmoa ez dela egia, manu edo epaiketa absolutuak egitea.

-Bideoen adibideak:

- Genero-estereotipoak eta hezkuntza²
- Genero-rolak gizartean³
- Genero-rolak – maskulinoa eta femeninoa⁴

→ JARRAIBIDEAK



- Parte-hartzaileei ez zaie eskatuko testuak ozen irakurtzeko, eroso sentitu behar direlako eta horien anonimotasuna eta pribatutasuna mantendu behar direlako.
- Halaber, adieraziko dugu idazketa-jarduera oso erabilgarria dela aukera ematen duelako askotan aztertzen ez diren baina gure memoria osatzen duten oroitzapenen, emozioen eta egoeren inguruan adierazteko eta pentsatzeko. Idazketa-prozesuan, sentimenduak eta emozioak argiagoak bilakatzen dira eta gure burua lasaitu eta berrantolatu egiten da. Taldea animatuko dugu bizitza pribatuan ere erabiltzera idazketa introspektiboa, bertan hartu behar baititugu erabaki konplexuak, gatazkak daudelako edo emozio gogorrek daudelako. Jarduera amaitzerakoan, eskerrak emango dizkiogu taldeari jardueran inplikatzegatik.

² EIGE Genero Berdintasunaren Europako Institutua, *Gender stereotypes and education*, (Genero-estereotipoak eta heziketa); online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=nRZ21nD9I-0>

³ Online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=LdEaz3mjaSw>

⁴ Online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=YlwWS2atEmc>

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna:_____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ **Iraupena:** _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

This image shows a single sheet of white paper with horizontal blue or grey ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page, leaving small margins at the top and bottom. There are no vertical margin lines, and the paper is otherwise completely blank.

[illegible]

MODULUEN ZERREND

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 **Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak**
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua